

# IPARRALDEKO EKOIZPENEN KATALOGOA

## 52. DURANGOKO AZOKA

2017ko abenduaren 6tik 10era

*gimig*

# IPARRALDETIK ERE EKOIZPEN ETA AURKEZPEN ANITZAK SORMENAREN LURRALDEAN

52. edizioko leloa «**Sormenaren lurraldea DA!**» izango da. Kultur eragile guztiak batzen dituen espazio moduan agertu nahi du eta bertan ematen diren istorioak, ikuskizunak, abenturak... aldarrikatu nahi ditu lelo horrekin Azokak. Gerediagako presidentea den Nerea Mujikak aurten azokara etortzeko gomita luzatu die kulturzaleei : « Abenduaren 6tik 10era denon artean bizia emango diogu Sormenaren Lurraldeari.»

Iparraldeko partaideen ekoizpenak naturalki sartzen dira lelo honen ildoan. Aurten ere berritasun ugariarekin izanen dira azokan. Urtero bezala, proposamen anitza izanen da eta kultur ekoizpen zabal bat aurkitzen ahalko da: produktu «klasikoak» diren liburu, disko eta DVD-etaz gain, beste motako proposamenak aurkeztuak izanen dira ere ; adibidez euskaraz den « Kamishibai » delako bat (Kamishibaia ipuinak kontatzeko teknika bat da, Japonian sortua. « Kami » hitzak papera esan nahi du; « shibaia » hitzak, antzerkigintza. Azken urte hauetan, teknika hori gero eta gehiago zabaltzen ari da Mendebaldean), haur kantu eta erhi joko bilduma baten inguruko maleta pedagogiko bat edo/ta liburu-diskoak.

Orain duela hamaika urte abiatu Gerediaga elkarte antolatzailearen eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetzari esker, Ipar Euskal Herriko ekoizpenak argiago agertzen dira Durangoko azokan.

Urtero, azokan aurkeztuak diren berritasunen artean gutti gora behera %10a Iparraldeko ekoizpenak dira: aurten 40 bat berritasun baino gehiago aurkitzen ahalko dira azokan.

## **2017ko ediziorako datu orokorrak:**

**2017ko kartelaren sortzailea:** Juan Antonio Sistiaga

**Stand kopurua:** 240

**Autoekoizleak:** 16

**Partaideak:** 129 + 16 autoekoizle

**200 kultur ekitaldi baino gehiago**

**Aurkeztuko diren berritasunak:** 400

Liburuak: 257, Diskoak: 92, Aldizkariak: 19, Bestelakoak (joko, agenda, egutegi... ): 27, Bideoak: 5

**Argizaiola Sariaren** orde, «Omentzetik ereitera» ekitaldia antolatuko da abenduaren 8an. Bertan aurkeztuko da Durangoko Azokako sormen beka berria.

## **Iparraldeko egituren datuak:**

**8 erakusmahain** (Goienkale 21 – 29)

**48 berritasun:** 20 liburu, 2 liburu-disko, 19 disko (hauen artean 2 autoekoizpen), 2 DVD eta bestelako 5 ekoizpen (egutegi, kamishibai, ...)

- **17 kultur ekitaldi:** kontzertuak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak, ...

# IPARRALDEKO EGITURAK

Aurten, Iparraldetik **9 egitura** izanen dira azokan: **5 argitaletxe, 3 diskoetxe eta bestelako egitura bat**. Iparraldeko partaide guzi hauek, espazio bateratu batean elkartuak dira urte guziz bezela (**Goienkale 21 - 29**). Elkar argitaletxearen Iparraldeko adarra Elkar-en mahai nagusian ordezkaturia da.

Argitaletxeak: **Maiatz, IkaS, Gatuzain, Zortziko** eta **Elkar**

Diskoetxeak: **Agorila, ZTK** eta **SaroiA**

Beste egitura motak: **Iparraldeko Ikastolak**

*Maiatz.*

**iKAs**



**elkar**

**AGORILA**  
Productions Disks  
[www.agorila.com](http://www.agorila.com)



**SAROI4**



# IPARRALDEKO EKOIZPENAK



# AURKIBIDEA


<b>LIBURUAK</b>	<b>6</b>
<b>LIBURU-DISKOAK</b>	<b>10</b>
<b>DISKOAK</b>	<b>10</b>
<b>DVD-AK</b>	<b>14</b>
<b>BESTELAKO EKOIZPENAK</b>	<b>14</b>
<b>HITZORDUAK</b>	<b>16</b>

# LIBURUAK

## ELKAR argitaletxea

**Titulua:** *Deserria haurtzaro*  
**Egilea:** Maddi Zubeldia Arozena  
**Hizkuntza:** Euskara  
**Generoa:** Eleberria

Sei urteko Anak Frantziako Mesozera bizitzera joatea argitik itzalerako bidaia bezala bizi du. Ilunpe horretan badu izpi ederrik, halere: aitaren hitz-joko zoragarriak, Danièle lagun-mina, eta, batez ere, barne mundu ezin aberatsagoa. Ana ez baita edozein neskatxa. Amets-bidaia egiten ditu, eta bertan sekretu harrigarriak azaleratzen, emeki-emeki. Eleberri honek autobiografia, historia eta fantasia elkartzen ditu, idazkera fin eta aisitean. Frankismoaren garaiko haur ebatsien gaia ere poesiaz janztea lortzen du Maddi Zubeldiak. Irria negarrarekin nahastea lortzen duen bezala. Lehen eleberri ederra, irakurri ondoren buruko xoko batean gelditzen zaigun horietakoa.



\*\*\*

**Titulua:** *Erran-merrana + Juglaren hatsa*  
**Egilea:** Kolektiboa  
**Generoa:** Haur literatura  
**Erran-merrana** : Herrian, goizean, berriak dabilta airean.

Gorka eta Mikel, munduko lagunik onenak, hizkatu omen dira! Erran-merrana badabil, etxez etxe, dendaz denda: denak kezkatzen dira, bakoitza bere gisara. Zuzen ala oker... usteak ustel? **Juglaren hatsa** : Leiona desesperatua da, Papagai bere lagunak erran baitio ahoan txakal hatsa bazuela. Lagun batzurengana abian da, baina denak ohartzen dira hats kirats bera badutela. Zer egin, junglean hats nazkagarria kentzeko?



\*\*\*

**Titulua:** *Euskal atalburuak - Les linteaux basques*  
**Egileak:** Mikel Duvert, Kepa Etchandy  
**Hizkuntza:** Elebiduna (Euskara /Frantsesa)  
**Generoa:** Ondarea


Etxeen atearen gainean aurkitzen diren harrizko atalburu hauek maiz euskal kulturaren elementu asko bezela, emblematicoak bezela agertzen badira ere, gaizki ezagutuak dira. Lauburu elkartearen sortzaile den et etnografoa den Mikel Duvert eta Baionako argazkialaria den Kepa Etchenady-ren arteko lan horrek, publiko zabalari eskuragarri bilakaarazi nahi ditu.



\*\*\*

**Titulua:** *Jendeak*  
**Egilea:** Daniel Landart  
**Hizkuntza:** Euskara  
**Generoa:** Literatura

Kontakizun desberdinek osatzen dute Jendeak liburua. Ipar Euskal Herriko laborari munduko kokatuak dira, XX. mendeko bigarren zatian. Jende horiek –haur, gazte, zahar– adin batera helduak diren guztiak ezagutu dituzte, edo bederen, noizbait, nonbaitik, zerbait entzun dute. Kontakizun bakoitza, errealki gertatua edo asmatua, anekdota soil batetik abiatzen da. Kontakizun hauek iragan hurbileko euskal gizartearen berri ematen digute: atzokoaz oroitzeko, eta ahalaz, geroaldi hobe baten obratzeko!



## GATUZAIN argitaletxea

**Titulua:** *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*  
**Egilea:** Jean François Cerquand. Anuntxi Aranaren transkripzioa  
**Generoa:** Ikerketa

Jean François Cerquand-ek "Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak" argitaratu zituen 1875 eta 1885




arteko lau artikulutan, eta gaiari buruz egindako lehen lan seriotzat jotzen da. Hartan badira alegiak, parabolak, ipuin irringarriak eta miresgarriak, kondaira mitikoak; eta gure mitologiako pertsonai ospetsuak azaltzen dira: Euli langileak (Prakagorriak), Laminak, Basajauna, Tartaroa, Herensugea, Arrolan... Bildumaren hedapenerako oztopo izan zen, naski, haren ortografia zaila. Egungoari moldatua argitaratu zen 1985-1986 eta, edizio hori agortuta, berean finkaturik dator berriz oraingo hau. Iparraldeko euskalkietaz bilduak izan diren kondaira zahar hauek interes berezia dute, bai hizkuntza aldetik eta bai mitologia aldetik.



## MAIATZ elkarte argitaletxea

**Titulua:** *Arima animalia*  
**Egilea:** Juankar L. Mugartza  
**Generoa:** Poesia

Poesia kultoa eta herritarra uztaizten dira obra zabal honetan. Irakasle nafartarrak gaurkotasan biziarekin hitza eta sendimenaren paroa eskaintzen digu.



\*\*\*

**Titulua:** *Basaburuko altxorrak*  
**Egilea:** Mikel Hiribarren  
**Generoa:** Kronikak

Kronika liburu honetan bost urtez Itsasuko laborariak idatzi testuak dira, naturaren errespetua, laborantza alternatiba eta bizi aldarrikatzen dutenak.



\*\*\*

**Titulua:** *Bihotz ebatsiak*  
**Egilea:** Pierre Mestrot  
**Generoa:** Polizi nobela

Laugarren obra honekin thriller batean sartzen gara, sorginkeriaren aztarnak organo trafikarekin bat egiten direlarik kontakizun

korapilatsu batean.



\*\*\*

**Titulua:** *Frantzia eta nazioa*  
**Egilea:** Jean Louis Davant  
**Generoa:** Saioa

Liburu politiko honek Frantziak nola bere hizkuntza nazionala eraiki zuen, aspalditik gaur arte, besteak baztertuz ikusten da. Dokumentu asko agertzen dira, erakusten dutenak nola frantsesaren predikariek zer arrazoin eman zuten.



\*\*\*

**Titulua:** *Garapena gelditu*

**Egilea:** Xipri Arbelbide

**Generoa:** Saiola

Garapenaren gehiegikeri hilkorrak salatzen dira hemen, zuhurtziaren hitzekin eta Aita Sainduaren ateraldiekin. Obra bat gehiago kontzientzien idekitzeko.



\*\*\*

**Titulua:** *Lolita*

**Egilea:** Lola Sarratea

**Generoa:** Ipuinak

Kontakizunen bidez Baztango bizia eta emazte baten borroka bere nortasuna zaintzeko agertzen dira. Munduan gaindi ibili denak bere ohar sakonez elkartasuna eta samurtasuna ardatz bezala erakusten ditu.




\*\*\*

**Titulua:** *Odolak su gabe diraki*

**Egilea:** Itxaro Borda

**Generoa:** Antzerkia

Gure herriko gaimin bera bati buruz dabil obra, jendearen kontzientzia piztu nahiz, bortizkeriaren bidetik sortu tragedia eta minen soletzeko nahikeriarekin.



\*\*\*

**Titulua:** *Lagun bila*

**Egilea:** Audrey Poussier

**Itzultzailea(k):** Alice Casenave eta IKAS-eko lankideak.

**Gainbegirada:** Jean-Louis Davant euskaltzaina.

**Generoa:** Haur literatura 6 urtetik gora

Uda da, eta Batita enoatzen da; lagun bila dabil. Lau haizetara zabaldu gomitari, Joana auzoak baizik ez dio ihardesten. Batita ohartuko dea azkenean hura duela lagun hoberena?

Gaiak: adiskidetasuna, hurbilekoen arta hartzea



\*\*\*

## IKAS pedagogia zerbitzua

**Titulua:** *Arteen historia 3. zikloa*

**Egilea:** Unai Zubeldia (Ikas Pedagogia zerbitzua)

**Generoa:** ikas materiala

Sorkuntza honetan hiru garai lantzen dira : Historiaurrea, Antzinatea, Erdi-Aroa.

Ikastresna hau hiru euskarrik osatzen dute : irakaslearen liburua, ikaslearen irudi bilduma, eta ardatz kronologikoa.

Arte formak desberdinak , teknikak eta obra adierazgarriak (Euskal Herriko, Europako eta mundukoak) aurkitzen dira lan honetan.



**Titulua:** *Samurgoa*


**Egilea:** Claude Boujon

**Itzultzailea:** IKAS pedagogia zerbitzua

**Generoa:** Haur literatura 6 urtetik gorra

Grisu eta Gaztaina untxiak bakean bizi ziren, bakoitza bere ziloan eta elkarren ondoan. Baina noizbait samurtu ziren. Hara non, borrokan ari ziren aldi batez, azeri gose-hamikatu bat hurbiltzen zaien...

Gaiak: elkarbizitza, besteen desberdintasuna onartzea.



\*\*\*

**Titulua:** *Usmafin inspektorearen inkestak 3. zikloa*

**Egilea:** Christian Souchart

**Itzultzailea:** IKAS pedagogia zerbitzua

**Generoa:** Ikasmateriala

64 polizia-inkesta ebazteko

Fitxa bakoitzak polizia-enigma baten ebaztea proposatzen du. Seinaleen atzemateko, dokumentua artoski irakurri behar da. Lan horri esker plantan ezartzen dira arrazoinamendu- eta logika-praktikak.



## ZORTZIKO argitaletxea

**Titulua:** *Argazki bat, istorio bat / Une photo, une histoire*

**Egilea:** Daniel Velez

**Hizkuntzak:** Elebiduna (Euskara - Frantsesa)

**Generoa:** Argazki bilduma eta testook

Daniel Velez-en hirurogei argazki ohargarriak biltzen ditu liburu horrek eta euskal herri argazkiko kazetaritzaren historia kontakuz digu ere. « Daniel » izengoitz ezagutua, ez da nehoiz bere buruari gezurka ari eta beti ahalketia da bere lanean. Egun erran daiteke haren argazkiak euskal herriko begi oroimenaren parte bat bilakatu direla. Ez du deusetan ere amore ematen Danielek bere lanean. Gaurko gaiei buruzko argazkiak dira, noiztenka gordinak, ardurenean bereziak, baina beti gaur egungoak !



\*\*\*


**Titulua:** *Euskara mintzatu - Parler la langue basque*

**Egilea:** Robert Bonnet

**Generoa:** Ikas materiala

Robert Bonnet ez da gramatikaria, ez eta linguista, ez eta irakasle eta ere gutiago ikertzaile Bakarrik elezale, sintaxizale, da. Bere hersiko hizkuntza jirtorritza maite du opuskulu honetan, ezjezialisten aiparrenek zerrendutzen ditu euskararen lehengariak praktikoak. Hori esker, euskarari ongi murgilduko zara. Ttuku-ttuku, usmilki, ikaskuntza

bat, erabilgarria eta metodikoa, proposatzen die, euskara, nahi duten ikasi ta mintzatu deneri.



## ZTK argitaletxea

**Titulua:** *Itzul Ekhi*

**Egilea:** Paxkal Indo

**Ilustrazioak:** Mikel Alkoz

**Generoa:** Haur literatura

Ekhi hirian bizi da... Aitaxi Beñat bere bizitegia partekatzerat heldu da... Artzaina zen eta Ekhi ttipiaren amentsak beteko ditu mendi, ardi, saia eta bertze ainitz gaietaz... Egun batez mendirak bakarrik joatea erabakitzen du...



\*\*\*

**Titulua:** *Lili*

**Egileak:** Amaia Hennebutte - Paxkal Indo

**Generoa:** Haur literatura

Lili gazteriarendako den album bat da, norberari dugun estima duen gaia. Jack Kornfield, gogoetzaile budista amerikarrak dion bezala : «*Ez badugu amodiorik guhaurendako, ez gira sekulan kapable izanen beste norbaiten maitzterat*».



## LIBURU-DISKOAK


**IKAS pedagogia zerbitzua**

**Titulua:** *Barnetik*

**Egileak:** Josiane Aguerre Valencia - Philippe Albor

**Generoa:** Haur kantuak 2 urtetik gora

Biribil obraren ildotik. CDa + liburuxka. Sorkuntza testuen, ilustrazioen eta musikaren aldetik, gai klasikoaren inguruan (natura, animaliak, gorputza...). 16 haur kantu, musikaz lagunduak. Sorkuntza moderno eta biziak.



## ZTK argitaletxea

**Titulua:** *Züek Heben: EHko atlas geopoetikoa*

**Egileak:** Mixel Etxekopar, J. Etxebarria eta P. Laskarai-en aragazkiekin

**Generoa:** Literatura

LIBURU + 2 KD

Euskal Herriko Atlas geopoetiko baten marraztea da Züek Heben, proiektuaren anbizioa, tokian tokiko hitzak eta soinuak entzunez, eta jenden behakoeri so bat eginez.

7 Herri bisitatuz geroz liburu diska bat aterako da lekuko... Poetiko eta emankorra, hiri eta herriari buruzko behako berezi batekin eramaten dute Züek Heben proiektuaren aktoreek.

Bururapen gabeko ixtoria bat...



## DISKOAK

**AGORILA disketxea**

**Titulua:** *Hegaldaka*

**Egilea:** Pauline & Juliette

**Generoa:** Folk

Gazteak, dohatuak eta hainbat harrituak bat bateko arrakasta horren aurrean, Pauline et Juliette dohatzi, kantaldiz kantaldi, artista ospetsuenen sustenguearekin. Euskal folkari behako berri bat emanez, 70 hamarkadako kantuak berriz hartzen dituzte beren molde zintzo eta dedikatuan.

Kultura desberdinen artean bidaia koloretsu baten egiteko parada eskaintzen dizue beren lehen diskoak. Lehen bait lehen deskubritu behar den bikote bat....



\*\*\*

**Titulua:** *Kolorez bizi*

**Egilea:** Hiru Soinu

**Generoa:** Folk

Hiru soinu taldeak lau kide ditu: Maider Cigarroa, Xabi eta Peio Brave, eta Peio Molinier. Lau gazte, musikaz amaratutak, kantu xapelketa irabazi zuten 2012 an, Donostian. Jatorriz senpertarra den taldeak bere hirugarren lana ateratzen du. Sorkuntza eta antolaketa propioak eginez, berritasun hats bat ekartzen dute euskal musikan bi lehen disken izpirituan, herrikoia eta berritasuna nahasiz. Tresna berri batzuk gehituz, hiru bozetan kantatua da disko hori, Philippe Albor perkusioekinlaguntzaile, eta

lehen aldikotz kantu bat ingleser proposatuz.



\*\*\*

**Titulua:** Robles Arangiz'tarrak  
**Egilea:** Robles Arangiz'tarrak  
**Generoa:** Euskal kantua

Honako lan hau, Euskal Kantagintza Berriaren hastapenetatik gaurdaino euskal kulturaren eta, bereziki euskal kantuan, sortzaile eta transmisio bidegile eredugarri izan den eta den Robles-Arangiz familiaren lana eta ibilbidea jasotzeko eta zabaltzeko burutua da.



\*\*\*

**Titulua:** Bakean kantatuz  
**Egilea:** Atxik berrituz  
**Generoa:** Euskal kantua

Atxik berrituz Iparraldeko Kristau kolektiboak Senperen bakearen alde antolatutako kantaldiaren grabaketa. Lan honen bidez, jendarte osoa deitzen dute bakegile izaitera eta presoen eta

gatazkaren biktima guzien aldeko deiari erantzutera.

Kantuez gain, olerkiak ere badaude obra huntan, bakea gai unibertsal izanik, batzu kanpoko olerkari zombaitenak, berdin musika zati hutsak.



\*\*\*

**Titulua:** Bidaian  
**Egilea:** Kantu  
**Generoa:** Euskal kantua

Kantu gizon abesbatza Hendaia eta Txingudiko baiaren artean sortu zen 2011. Diska honekin, kantuarren bidez bidaia bat abiatzen du abesbatzak.



\*\*\*

**Titulua:** Beti xutik  
**Egilea:** Alaiak  
**Generoa:** Abesbatza

Alaiak gizon abesbatzak, amodio, laguntasun eta familia istorioekin osaturiko diska berri bat proposatzen du. Larrunetik Konpostelara, bere balore, kulturaz ta hizkuntzaz harro den taldea.



\*\*\*

**Titulua:** Hamar urteko bidaia  
**Egilea:** Gogotik  
**Generoa:** Abesbatza

Jean Marie Piolet -ren zuzendaritza pean den Gogotik abesbatzak bere hamar urteko ibilbidea ospatzen du diska berri horrekin.



\*\*\*

**Titulua:** Lehen hola orain nola gero ez jakin nola  
**Egilea:** Ahoz  
**Generoa:** Abesbatza

Ahoz abesbatzaren errepertorioa gaurko eta ohizko euskal kantuez osatua da, erlijiozkoak baita profanoak. Errepertorio honen osatzeko, frantseser, espainolez baita latinez interpretatutako kantuak atsemanen dira.






## ELKAR disketxea

**Titulua:** *Bas(h)oa*

**Egileak:** Beñat Achiary, Joseba Irazoki, Julen Achiary

**Generoa:** Euskal musika

Beñat Achiary, Joseba Irazoki eta Julen Achiary iparrean zein hegoan diharduten musikari porrokatuak ditugu, sortzaile apartak, eta elkarren artean Bas(h)oa izeneko lan harrigarri bezain bizigarria ondu dute, Ipar Amerikako Robbie Basho (1940-1986) musikariaren lana eta pentsamendua euren ganatuz



## SAROA disketxea

**Titulua:** *Lamin*

**Egileak:** Kalakan & Duo l'Incontro

**Generoa:** Euskal musika

“Duo l'Incontro”rekin batera lan berri hunen aurkeztea deliberratu du Kalakanek bere kolaborazio

berriarentzat. Beti esperientzia aberasgarrien bila, harpa eta oboeaz inguratzen da hirukotea dimentsio berri bat emanez euskal kantuari. Musika barrokoaren eta euskal melodia tradizionalen arteko nahasketa, italiar testu eta euskal olerkien topaketa. Deskubritzekoa!



## ZTK ekoizpen etxea

**Titulua:** *Belarretan*

**Egileak:** Kuntzulu eta Konpainia

**Generoa:** Ohizko musika

Sortzez Izuratarra eta gaur egun Donapaleun bizi den Kuntzuluren diska berriak berak idatzitako kantuez osatua.



\*\*\*

**Titulua:** *Böhm et Bach, du maître à l'élève*

**Egilea:** Vincent Bernhardt

**Generoa:** Musika barokoa

1987an sortua, Vincent Bernhardt Metz-eko kontzerbatorioko orga erakaslea da 2012 gerotiz. Han bertan « basse continue » teknika delakoaren erakasle da baita ere eta lehengo musiken departamendua

kudeatzen du.



\*\*\*

**Titulua:** *Dantz'Haka*

**Egilea:** Etxahun elkarte

**Generoa:** Dantza

Emanaldi honen bidez, ETXAHUN elkarteak kultura eta kirolaren arteko desberdintasunak baita tensio eta kalapitak galdezkatzen ditu. 50 parte hartzaile izan dira emanaldi hontan : dantzari, musikari, kantari, antzezle, ... argi joko eta bideoaren bidez lagunduak izan dira.



\*\*\*


**Titulua:** *Lau Sasuak*

**Egilea:** Kolektiboa

**Generoa:** Musika klasikoa

Arranoa laukotearen diska berria, Vivaldiren musika barrokoa Marc Mellits amerikar musikaegilearen musika garaikidearekin nahasten duena. Vivaldiren errepertorioan Marina Beheretxek biziki ezaguna den « 4 Sasuak » hautatu du eta honen bertsio berri bat proposatzen dute euskal musikariek lagundurik. Diskari bere izena eman dion Ligetx-ek egin « lau sasua » bertsua segitzen du. Soloak Stéphane

Rougier-ek eskaintzen ditu , eta euskal musikarentzat Mixel Etzekopar, Paxkal Indo, Paxkalin Chabagno eta Patrik Larralde bezelako artistak sartu dira.



\*\*\*

**Titulua:** *Metamorfosia*

**Egileak:** Pantxix Bidart - Alexis Therain

Jos Roy-en olerkiak *Balea* Maiatz argitaletxeak 2016ko ekainean atera liburutik hartuak dira. Lucien Etchezaharreta euskaraturik.



\*\*\*

**Titulua:** *Shamrocks and Thistles*

**Egilea:** Gurvan Guillaumin

**Generoa:** Zeltiar musika

Gurvan Guillaumin 7 urtetan hasten da musika ikasten klarinetea eta gitarra landuz. Bihozkada bat badu zeltiar musikarentzat eta bere tresna atipikoentzat. Autodidakta, talde ospetsuetan hartzen du bere inspirazioa bere estiloa garatzeko.



\*\*\*

**Titulua:** *Oihaneko Zühainetan*

**Egileak:** Elsa eta Oihan Oliarj-Ines

**Ekoizpena:** Aldudarrak Bideo banaketa ZTK

Oihaneke musika jotzen du. Elsak dokumentalak egiten ditu. Biek maite dute lan egitea inguruan dituzten osagaiekin. Xiberoko 12 kantariengandik 12 kantu herrikoiki bildu ondoan, Oihaneke disko bat egin eta grabatu ditu jazz, rock, pop eta kantu herrikoioak nahasiz. Errespetu eta gaztetasunarekin, maiz akapela kantatuak diren aire horiek baina ere erritmo eta melodia askatasuna duten kantari horiek segitu nahi izan ditu. Bere kamararekin, Elsak filmatu ditu grabaketak, lan desberdinak baina ere kantariak eta haien kezkek, nola bizi irunarazi kantu herrikoioak desitxuratu gabe? " Disko bat, filma bat, bi aldiz aukera gehiago ulertzeko kantu honen zentzua Xiberoran, bi aldiz aukera gehiago kantu aire hauengandik nagusitua izateko.



## AUTOEKOIZPENAK

**Titulua:** *FaltA*

**Egilea:** FaltA

**Generoa:** Post rock

FaltA taldea, Beñadin Lohiague kantaria eta gitarrista, Manu Etzegarai baterista eta kantaria eta Sebastien Delaporte bajistak osatzen dute. Haien lehen diska, autoekoizpenean plazaratua da.



\*\*\*

**Titulua:** *Set 3*

**Egilea:** Zeze

**Generoa:** Elektro world

Biarritzeko musikaria, ZEZEK «battle» musikal bat proposatzen du bere elektrozequenziak eta folk musika tresnen artean : txistu, mando-ukulele, gaita galega, xirula, strumstick, ttun ttun, sanza,....




# D V D - a k

## OLENTZEROREN LAGUNAK elkarte

**Titulua:** *Olentzero jalgi hadi Baionara*

**Egilea:** Olentzeroren Lagunak elkarte

DVD-Diska hau 2016ko abenduan Baionan izan zen Olentzero kantuz jalgi hadi Baionara kontzertuaren grabaketa zuzena da. Ekitaldi honetan, 300 bat parte hartzaile izan dira: Baionako 12 ikastetxeek, 3 abesbatzek, Iruñako Lau Urrats dantza taldea, eta Noaingo eskola publikoko hau abesbatzak parte hartu dute.



## ZTK ekoizpen etxea

**Titulua:** *4 Sasuak Dantza*

**Egilea:** Conservatoire Henri Duparc Tarbes

**Hizkuntza:** Euskara eta frantsesa

« Vivaldiren 4 Sasuak », Arranoa Laukoteak interpretatuta eta Tarbeseko Kontserbatorioko musikariek lagundurik eta dantzako erakasleek koreografiaturik.



## BESTELAKO EKOIZPENAK

### IKAS pedagogia zerbitzua

**Titulua:** *Barnetik*

**Egileak:** Josiane Aguerre - Valencia, Philippe Albor

**Ekoizpen mota:** Maleta pedagogikoa

Biribil obraren ildotik

A3 formatuko 15 ilustrazio ; atzean testuak. Eta CDa bere liburuxkarekin. IKASen webgunean ustiapen pedagogikoa atzeman daiteke : [www.ikas.eus](http://www.ikas.eus)




## MAIATZ argitaletxea

**Titulua:** Maiatz aldizkaria 64 eta 65

**Egilea:** Kolektiboa

**Ekoizpen mota:** Literatur aldizkaria

Maiatz literatur aldizkarian, literaturaren arlo ezberdinak lantzen dira: saioa, itzulpena, antzerkia, poesia, elelburra, kronikak, liburu aurkezpenak, literaturaren aktualitatea.





## SEASKA

**Titulua:** *Seaska federazioko ikastolen 2018ko egutegia*

**Egilea:** Seaska

**Ekoizpen mota:** Egutegia

Urte guziz bezala, Seaskako egutegi berriak euskal izenak zerrendatzen ditu. Aurtengo edizioaren orrialdeak Robert Thurin Donibandar argazkilaria irudiekin apainduak dira.



2018  Urtarrila

**Titulua:** Xiru eta Miru

**Egileak:** Leo Saint-Arroman - Pantxix Bidart

**Ekoizpen mota:** Komikia

Komiki honek Xiru eta Miruren abenturak aurkezten ditu, beti zozokerietan ari diren bi saia kokinen istorioak.




## ZTK ekoizpen etxea

**Titulua:** *Alida, neska erromania*

**Egilea:** Virginie Herveu

**Ekoizpen mota:** Kamishibai

Alidaren istorioak biografia parte bat dakar... baina ez gaitu horrek interesatu. Minoritate batetik ateratu behar ote da nortasun kolektibo bat barnatzeko? Euskarazko Kamishibai honek galdera hori pausatzen du.



# IPARRALDEKO HITZORDUAK

**ARETO NAGUSIA:** Hitzaren plaza

**SAGUGANBARA:** Txiki eta handien plaza

**PLATERUENA:** Kontzertu handien plaza

**AHOTSENEA:** Sortzaileen plaza

**IRUDIENEA:** Ikus-entzunezkoen plaza



## ABENDUAK 6 ASTEAZKENA

### AHOTSENEA

**13:00** - **Liburu aurkezpena** | Maddi Zubeldia « Deserria haurtzaro » (Elkar)

**16:30** - **Liburu aurkezpena** | Maiatz aldizkaria (Maiatz, 2017) (Elkar)

### IRUDIENEA

**13:00** - **Dokumentala** | «Estitxu» Zuzendaritza : Franck Dolosor

## ABENDUAK 7 OSTEGUNA

### AHOTSENEA

**12:00** - **Liburu aurkezpena** | Lola Sarratea « Lolita » (Maiatz)

**15:40** - **Liburu aurkezpena / errezitaldia** | B. Axiari, J. Irazoki, J. Axiari « Bas(h)oa » (Elkar)

## ABENDUAK 8 OSTIRALA

### ARETO NAGUSIA

**11:00** - **Hitzaldia** | Zer da Euskal Ethnopoloa? Pantxo Etchegoin, Euskal kultur erakundeko zuzendaria

**11:30** - **Hitzaldia | Olentzeroren lagunak** « Olentzero jalgi hadi Baionara » egitasmoaren aurkezpena

### AHOTSENEA

**13:30** - **Liburu aurkezpena** | Juankar L. Mugartza « Arima animalia » (Elkar)

### SAGUGANBARA

**16:30** - **Liburu aurkezpena** | Amaia Hennebutte « Lili » (ZTK)

## ABENDUAK 9 LARUNBATA

### AHOTSENEA

**11:40** - **Kontzertua** | FaltA «FaltA» (autoekoizpena)

**19:00** - **Liburu aurkezpena / errezitaldia** - JM Bedaxagar, M. Etxekopar, JM Beltran « Zuhainpeko soinuak » (Syntorama)

## ABENDUAK 10 IGANDEA

### ARETO NAGUSIA

**16:30** - **Liburu aurkezpena** | Jean-Louis Davant «Frantzia eta nazioa » (Maiatz)

**17:00** - **Liburu aurkezpena** | Mikel Hiribarren «Basaburuko altxorrak» (Maiatz)

**17:30** - **Liburu aurkezpena** | Xipri Arbelbide «Garapena gelditu» (Maiatz)

### AHOTSENEA

**16:30** - **Liburu aurkezpena** | Pierre Mestrot « Bihotz Ebatsiak » (Maiatz)

**17:00** - **Kontzertua** | Pauline & Juliette «Hegaldaka» (Agorila)

### PLATERUENA

**13:00** - **Kontzertua** | ZEZE « Set 3 » (autoekoizpena)




# ORDUTEGIA ETA KOKAPENA

AZOKAKO ORDUTEGIA HONAKOA **DA!**



**10:30 – 20:00**

SARRERA DOAN





2017ko ABENDUAREN 6tik 10era  
**DURANGOKO AZOKA 52 KULTURAREN PLAZA**

[WWW.DURANGOKOAZOKA.EUS](http://WWW.DURANGOKOAZOKA.EUS)

## PARTAIDEAK



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Lota jauregia BP6

64480 UZTARITZE

Tel: (0033) 5 59 93 25 25

[www.durango.eke.eus](http://www.durango.eke.eus)

Harremanetarako:

Maia Etchandy | [maia.etchandy@eke.eus](mailto:maia.etchandy@eke.eus)